

## GURE HELBURUAK

### **Bizitza kalitatea bermatzea:**

Pertsona nagusiei baserri edo landa guneko etxebizitzetara kalitatezko arreta publikoa eramatea.

### **Arreta goiztiarra:**

Pertsonentzako kaltegarriak diren egoerak aurreikustea.

### **Ahalduntzea:**

Landa eremuko komunitateren zaintza gaitasuna aintzat hartuz, auzotarrak ahalduntzea.

### **Zubiak eraikitzea:**

Gizarte zerbitzuak eta landa eremuko biztanleak elkar konektatzea.



## **Proiektuaren aurkezpena**

**Urriak 25, osteguna**  
**Arratsaldeko 18:30ean**  
**Amasako Kultur-Etxean**

AMASA-VILLABONA  Villabonako Udala

# LANDALAB

Landa eremuetan pertsona nagusiengan, gizarte esku-hartze goiztiarra gauzatzeko proiektu aitzindaria.






## Amasa-Villabonako landa guneko argazki bat

### Gaur egungo egoera

Egun Amasa-Villabonako landa eremuko zahartze tasa herriko batazbestekoa baino nabarmen handiagoa da.



## Erantzuna emateko eredu aitzindari bat

Komunitatea osatzen duten auzokideen ezagutza eta udalaren zerbitzuak uztartuz elkarzaintza bat eraiki nahi dugu.



### Ereduaren gakoak

Borondatezkoa: auzo-zaintza auzolanaren logika berean gauzatuko da, auzotarren borondatetik.

Landa-zainak: laguntza premian dauden pertsonen egoeren berri emango duten agente komunitarioak dira.

Konfidentzialtasuna bermatuko dugu.

Gizarte zerbitzuen eskaintza: Esku-hartzea beti profesionalen esku geratuko da.

Teknologia: Gizarte zerbitzuak eta landa-zainak lotzeko tresna berritzaileen aldeko apustua egingo dugu.

## Begi-bistan ditugun erronkak

Landa eremua zaharkitutako kontestua dugu. Indibidualismoak, atomizazio sozialak eta zerbitzuenganako urruntasunak baserri guneetako helduak arrisku egoeran jartzen ditu.

Tokian tokiko erantzunak ematea ezinbestekoa dela deritzogu, zerbitzuak jendeari egokituz eta ez alderantziz.

Landa eremuetan dagoen auzolanerako kultura eta baloreak elkar zaintzara egokitzea da erronka nagusienetako bat.

### Etorkizunera begira

Denboraren poderioz zahartze tasak areagotuko dira, honek landa eremuko biztanleriaren galera eta aislamendua ekarriko du.

